

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria (((32. zk))) Maiatza-Uztaila 2016

Iritsi da arrandegia Itsasondora

Eskola: Irati gure eskolan
Ibilbidea: Altamira - Lazkaomendi - Altamira
Etorri berriak: Irune Armendariz



Negua oso leun joan da aurten; batzuek klima aldaketari egozten diote arrazoia. Udaberria ere keinuka daukagu dagoeneko; udaberriko lehen hosto eta loreak izuti agertzen hasi dira gure baso, kale eta balkoietan, eta gure artean alergiak dituztenek ere dagoeneko atzeman diote; doministiku mukia eta gainerako jarioak horren lekuko. Zer egingo diogu bada, bizitzaren zikloa omen.

Azken aldian han eta hemen entzuten dugu mundu globalizatu batean bizi garela. Itsasondo ere, bere txikitasunean, horren lekuko dugu. Munduko txoko urrun batean gertatzen denak modu batean edo bestean gurean ere badu eragina, eta lehen urrun zirudiena orain gertuago daukagu. Globalizazioaren kalteen inguruan zerrenda luzea egin genezake, baina alde onak ere badituela ezin ukatuko dugu. Dena gertuago daukagun honetan, mundua txiki bihurtu dela dirudi. Hau kontuan izanik, gure aldizkarian atal berri batekin hastekotan gara: "Itsasondoarrak munduan". Bi ikuspegi izango ditu atal honek: batetik, Itsasondotik kanpo bizi diren itsasondoarrak, eta bestetik, beste lurralde batzuetatik gure herrira bizitzera etorri diren herritarrek. Modu labur batean beraien berri izan nahi dugu; nortzuk diren, zergatik joan diren kanpora eta zer nolako bizimodua daramaten jakin nahiko genuke. Baita ere gurekin batera kanpotik etorritako herritar ditugunak, zergatik etorri diren Itsasondora, zer duten gustuko gure herritik, zer nabari duten faltan beren herrialdetik, pixkatxo bat beraingana gerturatzeke saiakera egin nahi dugu. Ea gustukoa duzuen atal hau eta aurrera bidea duen.

Amaitzeko, betiko gomendioa egin nahi dizuegu: aldizkariaren orrietan murgildu eta gustuko duzunaz gozatu. Herri txikia izanik, hainbat ekintza eta ekimen egiten direnik ezin ukatu; zure gustukoa topatu eta parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu, eta besterik ezean, hemen duzu aldizkaria, herrian gertatzen denaren berri izateko.

Hurrengo alean egingo dugu topo, ahal badugu hobeto. ■


- 03-05. **Udaleko berriak**
- 06-07. **Eskola**
- 08. **Haurreskola**
- 09. **Etorri berriak:** Irune Armendariz
- 10-12. **Gazteria**
- 13. **Jubilatuak**
- 14-15. **Ibilbidea:** Altamira - Lazkaomendi - Altamira
- 16. **Guraso elkarteak**
- 17. **Haurren herria:** herri kontsulta
- 18. **Ongizatea:** Errauskailua eta osasuna
- 19. **Gazteak**
- 20-21. **Aranzadi:** Intsektuen hotelak
- 22. **Informatika**
- 23-25. **Hemeroteka**
- 26. **Natura eta errezeta**
- 27. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda**

Doinua: *Lagundurikan denoi*

Eskola txikientzat festa Itsasondon guraso eta ume ezin geldi egon, irakasle Iratik ea ba zer dion, iritzien bilketak egingo digu on aurreiritzi hobierik ba al dago inon?

Umeentzat proiektu berriak aukeran, jubilatuek berriz ekintzak ileran, xaguxarrak zintzilik, intsektuak hegan eulientzat hotelak hori zer ote dan...? errauskailuak behintzat kaltea soberan.

Atal berri batean nahi ditugu jarri bi lagun ertz banatan kontutan elkarri, bat herrira etorria bizitza egarri bestea joan zena zerbaiten aldarri, galderak eraman ta erantzuna ekarri



Udaleko berriak

Hauek dira 2016ko 1. hiruhilabetean udaletxean egindako bilkuretan landutako eta aurrera eramandako gai garrantzitsuenak.

Diru-laguntzak:

Eskatutakoak:

- Lehen hiruhilabetean ez da diru-laguntza eskaerarik egin, ez baita diru-laguntza deialdirik izan, ez Eusko Jaurlaritzatik ezta Foru Aldunditik ere.

Jasotakoak:

- Eusko Jaurlaritzak liburutegian teknologia berriak ezartzeko eta liburutegiko liburu berriak erosteko 1.572 euroko laguntza eman du.
- Eusko Jaurlaritzak euskararen aldeko ekin-tzengatik 990,25 euroko laguntza eman du.

Beste zenbait erabaki

- Nagusia 7-2. solairuan udalak duen etxebizitza errentan emateko erabakia onartu da. Otsailean jarri zen familia berria bertan bizitzen.
- Lau obra baimen espediente onartu dira.
- 2016. urteko udal aurrekontua onartu da (informazioa aldizkarian).
- Ibilgailu historikoak ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita uzteko eskaera ez da onartu.
- 2015eko 4. hiruhilabeteko ur errolda onartzea, 10.469,02 euro.
- Arrandegi ibiltari bati arraina saltzeko baimena eman zaio.

Mozioiak

- EH Bilduko zinegotzien aldeko botoarekin, Eibarko Udalak "Eibarko gizarte larrialdietarako laguntzak behar osoaren estaldura lortzeko" izeneko mozioari atxikimendua ematea onartu da.
- Emakumeen eta herri kurduaren alde aurkeztutako "EMAKUMEEN MUNDUKO MARTXAREN ALDEKO ELKARTASUNA" izeneko mozioa onartu da.
- Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren 40. urteurrena dela eta, aurkeztutako adierazpen instituzionala onartu da.
- Martxoaren 8an emakume langileen eguna ospatzen zenez, Feminismotik eraldaketa sozialera izeneko mozioa onartu da martxoaren 7an egindako udal bilkuran.
- Kamioien aparkalekuan aparkatzeko eskari gehiago izan dira, eta horiek onartu dira; guztira hiru izan dira.
- 2016ko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu da; zenbatekoa, 54.274,04 euro.
- Zergak ordaintzeko aplazamendu eskari bat onartu da.
- Preskribituta zeuden zerga zorren zerrendari baja emateko espedientea onartu da.
- Epe jakinetarako langileak kontratatatu dira: Jose M^a Oria, M^a Teresa Elicege eta Javier Azurmendi.
- Fakturen zerrendak onartu dira. 1. hiruhilabetean onartutako fakturak 69.174,46 eurokoak izan dira.




Udal maileguak

Itsasondo Udalak Kutxarekin 2011n hitzartutako 120.000 euroko mailegua erabat kitatzea erabaki da martxoaren 7an egindako batzarrean. Amortizatze falta ziren 32.709,36 € ordaindu dira martxoan, eta udalaren zorra 0 eurokoa izatera pasatu da.

2015eko likidazioa

2015. urteko likidazioa onartu da laburpen honekin:

- 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n: 289.128,88 €
- 2.- Kobratzeko saldoak 2015-12-31n: 152.399,90 €
- 3.- Ordaintzeko saldoak 2015-12-31n: 72.421,50 €
- 4.- Gerakina (superabita) 369.108,28 €



SARRERAK

Zergak	128.600 €
Obra baimenak	-
Tasak	105.933 €
Uffaren ekarpena eta diru-laguntzak	450.175 €
Diru-laguntzak	44.210 €
Errentak-interesak	17.500 €
Orubeen salmenta	-
Diru-laguntza proiektu handi	63.690 €
Kreditu gehiagarriak finantziatuz	-
Epe luzera jasotako maileguak	-

	810.108 €

GASTUAK

Pertsonala	266.914 €
Gastu komunak (argiteria, ura, berogailua, tel.)	236.649 €
Interesak mailegu	1.450 €
Diru-laguntzak eta erakundeei ekarpenak	130.661 €
Inbertsio gastuak	157.158 €
Transf. landa gipuzkoa	
Epe luzerako maileguak amortiza	17.275 €

	810.108 €

INBERTSIO TAULA

	Inbertsioa	Diru-laguntza	Ekarpena
Ur depositoko hodi zaharra aldatu	54.000,00 €	- €	54.000,00 €
Beko kaleko proiektua, mapa topografikoa	17.545,00 €		17.545,00 €
Ludoteka			5.815,00 €
Altzariak	2.915,00 €		
Obra biltegi gela eraikiz	2.000,00 €		
Haurrentzako liburu adierazleak	900,00 €		
Txirrindu gordailua	2.000,00 €		2.000,00 €
Plazako obra	2.000,00 €		2.000,00 €
Desfibriladorea	1.395,13 €		1.395,13 €
Denbora bankua (software)	2.000,00 €		2.000,00 €
Ingurune Naturala Murumendi ekintzak	61.750,00 €	45.156,00 €	16.594,00 €
Herri Eskolan berrikuntza obrak	6.000,00 €		
Bestelakoak	4.653,00 €		4.653,00 €
	157.158,13 €	45.156,00 €	106.002,13 €

**Inbertsioak**

Aurten egin behar diren inbertsioetarako ez dago diru-laguntzarik aurreikusita, Murumendi ingurunean egiten ari garen Ingurune Naturalaren eta biodibertsitatearen zaintzarako proiekturako lortutakoak izan ezik. Udalak zuzenean egin beharko die aurre beste gastu guztiei.

Urteroko diru sarrera eta gastuez aparte

- 2016rako inbertsio nagusia, gastuaren zenbatekoari dagokionez, ur depositoko hodi zahar bat aldatzea.
- Bestalde, Beko kaleko proiektuarekin jarraitzeko dagozkion pausoak emango dira, adibidez, mapa topografikoa eginez.
- Ludoteka haurrentzat aberasgarriagoa izan dadin altzari eta material berriekin hornituko da.
- eta 5. Plazaren eraldaketa lanarekin jarraituz txirrinduentzat gordailu bat egin nahi da eta haurrentzat ziurragoa izan dadin azpiegitura ezarri.
- eta 7. Ongizateko taldeak somatu duen beharrari erantzunez, desfibriladorea eta denboraren bankurako software-a erosiko dira.
- Murumendiko ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen aldeko ekimenak eta lursailen erosketa gauzatzeko proiektua.
- Herri Eskolako parkearen berrikuntza eta beste obra txikiak gauzatzeko.

Udal foru fondoa

Bestalde, jakin aurten GFAREN Udal Foru Fondotik (diru sarrera iturri nagusia) jasoko duguna 450.175€ izango dela. Iaz 425.186€ jaso genituen, eta 7.340,76€ gehiago ordaindu dizkigu GFAtik egindako aurreikuspenak ezkorregiak izan zirelako.

Irati gure eskolan

Irati bi ikasturtez izan dugu andereño, lankide eta lagun. Haur Hezkuntzako andereño bezala etorri zen, eta bere irribarre garbi eta zintzo horrekin, guztiok maitemintzea lortu zuen. Ipuin zoragarriekin txunditu gaitu eta honela gogoratuko dugu, “gure eskolako istorio eta ipuin kontalari” bezala.



Guretzako benetako BOKAZIOA azaldu duen pertsona. Horrez gain, ilusioa, gogoia, jakin-mina, guztiekiko begirunea azaldu duen gaztea topatu dugu. Benetako profesionala eta pertsona.

Familia ere bertakoa du, Urkia auzokoa, hain zuzen ere. Ama bertan ikasitakoa da.

Ikasturte honetan bere proiektua “Hezkidetzatza”ri buruz izan da. Horretarako, historia aldatu duten emakumeen inguruan aritu da; horrela, lehen emakume astronauta, Ana Frank, Lucy... ezagutzeko aukera izan dugu.

Zer daramazu Itsasondoko eskolatik?

Ikaskuntza handia daramat nirekin, haurren inguruko ikaskuntza, irakasleriaren inguruko ikaskuntza, eskola txikien metodologiari dagokion ikaskuntza, eta batez ere, nire buruari buruzko ikaskuntza. Erronka berrien aurrean aurkitu naiz, inoiz bizi izan gabeko erronken aurrean. Askatasun osoa eman zait naizen bezalakoa

izateko, nire modura gauzak egiteko, esperimentatzeko, iritzia emateko, nire burua frogan jartzeko, irakasle izateko. Lehenengo egunetik errespetatua sentitu naiz, zaindua; eta leku bat eskaini didatela sentitu dut. Entzun egin naute, galdetu egin didate, aholku zein mesedeak eskatu, bat gehiago izan naiz, kontuan izan naute. Eta hori da nirekin daramadana: ekipo zoragarri bat, haur zoragarri batzuekin, herri zoragarri batean! Lehen irakaskuntza maite banuen, orain zer esanik ez. Pertsonak daramatzat nirekin, lagunak; eta nola ez, begirada politak, begirunez beteak. Hona hemen Irati, Frida Calhoren ipuina kontatzen bere eta gure “Hezkidetzatza” proiektuaren barruan, eta horren inguruan prestatuturiko jarduerak.

Zer aldatuko zenuke? Edo moldatu?

Eskolak, orokorrean, asko aldatu beharko lirartekeela uste dut, asko eta asko oso urrun baitaude haurren errealitatetik, etorkizunean topatuko duten gizarte horretatik. Baina hemen, Urkipen, lehen aipatu bezala, izugarritzko sorpresa hartu dut, gehienbat izan duten ausardiagatik. Aldaketa eurek eman dute ni bertara iritsi aurretik, eurak ohartu dira aldaketa horren beharraz, eta eurek egin dute gogor lan hori aurrera ateratzeko. Metodologia ezberdinen, adituen iritzien, eskola berritzaileen inguruan asko hausnartu ondoren, haurra guztiaren erdigunean jartzen duen lan egiteko modua aukeratu dute, eta errealitatea uneoro kontuan hartzen duena. Eta hori da nik eskoletan baloratzen dudana materialaz, espazioez, denboralizazioaz... at. Irakaslearen begirada, haurrei eskaintzen zaien lekua eta

denbora, euren erritmoa errespetatzea, haur bakoitza ezagutzea, familiei atek irekitzea... Horra hor eman duten aldaketa! Beraz, une honetan, oraindik ere prozesu horretan buru-belarri dabilzan une honetan, ez nuke ezer aldatu edo moldatuko. Guztiz kontrakoa, egiten ari direna gorai patuko nuke, euren esfortzua aintzat hartu. Izugarria da ikustea nola maite duten euren lana eta nola dauden prest uneoro euren burua berritzeko, ikasten jarraitzeko. Nola esango diet, bada, zerbait aldatu edo moldatuko nukeela! Oso profesional onak dira, eta dituzten zalantzak, beldurrak, kezak... beti jartzen dituzte mahai gainean; beraz, uneoro ari dira aldatzen eta moldatzen. Haurrak zoriontsu izan daitezten nahi dute, eta lortzen dute, noski! Hona hemen Iratik aipatzen duen begirada. Bere aurrean azaltzen da.




Non ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

A zer nolako galdera... hotzikara sartzen zait! Ez dut oso argi non ikusten dudan nire burua etorkizunean; izan ere, zerrendak itxita daude, oposaketak batek daki non, jende asko irakasle aritzeko... Beltz samarra da etorkizuna. Baina, itxaropenik ez dut galtzen, eta non ikusten dudan ez dakidan arren, non ikusi nahi nukkeen badakit. Herri txikiak asko gustatu zaizkit, eta eskola txikiak zer esanik ez. Beraz, asko gustatuko litzaidake, etorkizun batean, horrelako eskoletan aritzea, non adin aniztasuna ezaugarri bat den, haurren kopuruak txikiagoak diren, irakasleriak familia bat osatzen duen, eta metodologia nire pentsatzeko modura asko hurbiltzen den. Eta, eskola txiki batean ezin bada, haurra begirada egoki batekin begiratzen den eskola batean egon nahiko nuke, errealtatearekin bat doan eskola batean, erritmoak errespetatzen diren lekuan, guztiak zergatik eta zertarako bat duen lekuan, irakasleria berritzeko prest dagoen eskolan... bizitzarekin bat doan eskolan.

Zeintzuk dira zure ametsak?

Haurrekin batera ikastea da nire ametsetako bat, konturatu bainaiz eurengandik asko dugula ikasteko. Eta, beraz, hori bizitzen utziko didan eskola batean lan egitea gustatuko litzaidake. Beste ametsetako bat da gaur egun beldurrez edo tabu modura bizitzen ditugun gaien inguruan formatzea, eta baita azaletik lantzen diren gaien inguruan formatzea ere. Hala nola, heriotzaren, sexualitatearen, emozioen, sormenaren eta abarren inguruan gustatuko litzaidake formatzea; eta nola ez, hurrekin praktikan jartzea, hurrei aukera hauek ere ematea. Nire burua metodologia eta material ezberdinen aurrean ere aurkitu nahi dut, horrek profesional hobe egingo naudelakoan bainago. Baina, ametsetan handiena da erretiratu bitarte irakasle izatea, haurren bizitzen parte izatea, familiei ahal den neurrian laguntzea, eta pertsona hobeak izaten laguntzea, ni ere pertsona hobe bihurtuz. Kontziente naiz lan asko eskatzen duela lanbide honek, ordu asko sartzea, sufrimendu asko, buruhaustak, kezka, beldurrak, zalantzak... baina, guztiak merezi izan duela esaten amaitzen dugu irakasle guztiok, bokazioz lan egiten dugunok. Beraz, ametsetan ametsena horixe da: andereño izatea.



Mila esker, Irati!



Haurreskolak bizirik, herriak bizirik

Kaixo:

Berriro ere hemen gaude gure berri emateko. Oraingo honetan, haurreskola txikien apustua aldarrikatzera gatoz. Haurreskola txikien helburuetako bat da landa-eremuetako biztanleei hezkuntza eta laguntza izaerako zerbitzu baten eskuragarritasuna ahalbidetzea eta bertako haurrei autonomia eta motrizitate librea landuko duten espazio bat eskaintzea: plazerrez hazi eta ikastea.

Aurreko ikasturtera arte partzuergoak haurreskola txikietan salbuespenak egin baditu ere, aurtan hauekin zorrotz jokatzearabaki du, batetik irekita mantentzeko (hiru haur matrikulatu ezean haurres-

kola itxi egingo da) eta bestetik ordutegia murriztuz (familia hauek nahiz eta zortzi orduko zerbitzua ordaindu, zazpi orduz zabalduko da bost haur matrikulatuta egon arte). Horrelako erabakiek haurreskola askoren biziraupena jarri dute kolokan eta garrantzia kendu herri mailan.

Guk oraingo honetan gure lana argazki bidez erakutsiko dizuegu, askotan hitzek baino irudiek gehiago esaten baitute.

Besterik gabe, informazio gehiago nahi baduzue, etor zaitezte haurreskolara edo bestela deitu **943164831** telefonora (matrikula zabalik dago). ■

Irune Armendariz

(Berastegi, 1981)

Irribarreak ahotik alde egiten ez dion horietakoa da Irune. Egunean zehar, gauza askok sortzen omen diote irribarrea. Eta guk diogu: osasuntsu bizitzeko ba ote dago hori baino sendagai hoberik? Berastegiko lasaitasunera ohitua bazen ere, Itsasondon zarata gehiago topatu du; hala ere, alai eta gustura bizi da.



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Orain dela 12 urte.

Non bizi zinen lehen?

Berastegin.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Etxe bila genbiltzan, eta aukera ona topatu genuen bertan. Baita Iñigoren lantokia Goierritik gertuago geratzen zelako ere.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Gauza askorik ez, lanean pasatzen bainuen eguna. Herri barruko errepidetik pasatzen zen auto kopuruak harritu ninduen. Ni, Berastegitik etorrira, horrek txanditu ninduen gehien.

Zer lanbide duzu?

Momentu honetan langabezian nago, baina Osasun Dokumentazioan eta Mekanizazio Bidezko Produkzioan titulatu naiz.

Zer duzu faltan Berastegitik?

Neguko elurteak eta San Lorentzoko mendi bueltak.

Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

Udaletxea eta plaza bereizten dituen errepideko autoak ez zaizkit gustatzen. Beste nonbaitetik bideratuko nituzke, herria bitan zatitzen duen sentsazioa ematen bait dit, eta plazan ibiltzen diren hurrentzako arrisku handia ikusten dut. Autobideko zarata ere ez zait gustatzen.

Eta zer duzu gustuko?

Herri handiagoetara dagoen gertutasuna eta herrian bertan, txikia izanik, dauzkagun zerbitzu guztiak: haur txokoa (ludoteka), eskola, medikua, Lurdes janari-denda...

Zein zaletasun dituzu?

Kirola egitea.

Janari bat.

Marrubiak.

Itsasondoko gustuko txoko bat.

Urkiko plaza.

Amets bat?

Osasuntsu bizitzea ahalik eta urte gehien.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Xuban, semea.

Zeri diozu beldurra? Eta zer gorroto duzu?

Armiarmeia diet izugarrizko beldurra. Eta gorroto txakur gortzak.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Gauza askok. Egunean zehar gauza asko daude irribarrea eragiten didatenak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Berastegin. ■

Gazteria saila

GAZTERIA

Ekintza ugari antolatu ditugu Gazteria Saitetik eta Gaztelekutik. Hona hemen argazkiak:

1. Pintxo lehiaketan parte hartu dugu.
2. Sare sozialen eta mugikorren inguruko lanketa txiki bat egin dugu.
3. Gotzon Izquierdorekin taila ikastaroa egin dugu bi hilabetez.
4. Jaione Castrilloarekin bitxigintza ikastaroa egin dugu bi egunez.
5. Txomin Aranaren hitzaldia antolatu genuen herritar talde batekin.
6. Mendi Astea antolatu dugu, Jubilatutako Elkartearen eta Kultura batzordearen laguntzarekin.
7. Irakurzaletasun kanpaina antolatu dugu.
8. Aste Santuetako ekintzen barruan, BASKONIA -REAL MADRID partida ikustera joan ginen. A ze partidua! Orain, ikasturte amaierari begira, ekintzak antolatzeko prestatzen ari gara.



JOLAS TXOKOA

Urriari hasi zen prozesua amaitzear dago; izan ere, jolas txokoa, hausnarketa, inbentarioa eta margoketa egin eta gero, txoko berriak izendatu eta altzari berriak ia prest daude. Lau GUNE daude, eta bakoitzak bere ezauzgarriak ditu.

0-2 urteko haurren txokoa

Koltxoneta, ispilu eta beraien neurriko jostailuak uzteko altzariz osatuta dago espazio hau.

Haurrak mugitzeko premia du. Ez da gai luzaro objektu bati atentzioa jartzeko; horregatik, garrantzitsua da hezkuntza motoreari eskainitako uneak izatea. Ohikoak dituen mugimenduak egiten utzi behar zaio, objektu motibatzaileak bere eskura jarri eta ingurua ahal den aukera gehienegiz egokituz. Hori da espazio horren asmoa.

Jolas sinbolikoaren txokoa

Umeen jolasetatik nabarmenena jolas sinbolikoa dugu. Sei urtera arte nagusi da. Jolas sinbolikoaren bidez, hainbat gauza ikasiko ditu umeak. Adibidez: sukaldean, jantaria prestatzean, jolasten, koordinatzen, manipulatzeko ikasiko du; lehengaiak ezagutuko ditu, janari gordin eta egosien arteko ezberdintasunaz konturatu da. Beste hainbeste egingo du jolas mota desberdinekin (amatxo-aitaxo, mediku, suhiltzaile edo andereñotara jolasten duenean). Horretarako baliabideak jartzen saiatu gara.

Mahai jolasen txokoa

Bost urtetik gorakoentzat gustuko mahai jolasetan jardun ahal izateko materiala eta altzariak jarri dira. Bertan, eskulanak egin ahal izango dituzte.

Irakurketa txokoa

Txikieneen kasuan ere irakurketa sustatzeko duen garrantziaz jabetuta, haurrentzat egokiak diren liburuak jartzeko eta lasai irakurtzeko apaltxoak, mahaiak eta aulkiak jarri ditugu.

Biltegia

Hainbat material giltzapean gordetzeko gelatxo bat egin dugu.

Apirilean, zerbitzua hornitzeko deialdia egin dugu, eta hainbat herritarrek jostailuak utzi dituzte. Eskerrik asko!

Azkenik, zerbitzuaren aurkezpenak egiteko deialdiak egin dira, bai guraso bai haurrentzat. Hauen helburua bertaratuei eta erabiltzaileei egin diren lanen berri ematea eta funtzionamendua azaltzea izan da. ■



HAUR ETA GURASO TXOKOA

ARAUTEGI OROKORRA

Lagunekin egoteko aukera ematen digun jolas gelako giroa zaintzea DENON ardura da. Guztion artean zaindu behar dugu guraso, arduradun eta haurren arteko bizikidetzeta. Horregatik, ezinbestekoa da partaide guztiok ondoren azal-tzen diren arauak errespetatzea.

NORENTZAT

0-10 urte bitarteko haur eta beraien gurasoentzat.

EGUNAK

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16:30etik 19:00etara | abendutik apirilera bitartean, astean zehar goizetan erabili nahi bada, eskaera ofizial bidez baimena eskatu beharko da udaletxean.

ASTE-BUKAERATAN TXARTEL BIDEZ EDOZEIN ORDUTAN.

GELAREN ERABILERA

Ezingo da liburutegiaren eta haur txokoaren arteko korridorean korrika ibili. Liburutegiko eta sarrerako atea bezala, haur txokoak ere txartelarekin funtzionatuko du. Txartela eskuratzeko, gurasoek udaletxean eskaera ofiziala egin eta funtzionamendu arauak onartu beharko dituzte. 16 urte beherakoek ezingo dute txartela beraien izenean eskatu, baina 10 urtetik gorakoek gurasoen txartelarekin bakarrik ibil daitezke, jarrera ona izaten badute beti ere. Jarrera txarra izanez gero (zalapartaka ibili, liskarrean, gauzak jaso gabe utzi, materiala arduragabe erabili...) arreata adineko edonork dei diezaiekete eta udalak neurriak hartuko ditu, gurasoari txartela urtebete kentzeraino. Haur txokoaren barruan dagoen biltegia giltzaz itxita egongo da. Biltegitik ateratako guztia erabili ondoren, berriz ere biltegi barruan jaso eta atea giltzaz itxi beharko da.

GARBIKETA

Gurasoak arduratu behar dira, eguna bukatzean, zegoen bezala uzteaz. Behar diren garbigarriak udalak jarriko ditu.

MANTENIMENDUA

Materiala falta bada edo iradokizunen bat badago, ar-belean idatzi beharko da. Behar diren konponketak eskaera ofizial bidez egingo dira udaletxean. Argia eta berogailua udalaren ardura izango dira. Neguan, berogailua arratsaldeko 16:00etatik 18:30era egongo da martxan astelehenetik ostiralera. Larunbatean edo igandean beharko balitz, sarrerako botoia sakatu eta berogailua ordubetez martxan egongo da.

GURASOAK

Adineko edonork izango du ahalmena jarrera txarra erakusten duen haurrari arreata deitzeko, udalean kexa anonimoa sartuz edo haurrari zuzenean esanez. Antolaketa propioa izango du. Gurasoak ordezkariak izango dira eta udalarekin koordinazio iraunkorra izango dute, erabile-raren jarraipena egin ahal izateko. Haur bakoitzak bere arduraduna izan beharko du. Merienda eta bestelako jakiak jolas gelatik kanpo jango dira. Zabor organikoak udaletxe sarreran dagoen ontzian botako ditugu. Haur oihalak aldatzeko, komuneko aldalekua erabili eta oihal zikinak udaletxe sarreran, dagokion ontzian botako dira.

MATERIALA ZAINTZEN

Jostailu bat erabili ondoren eta beste bat hartu aurretik, erabilitakoa jaso. Gela, hurrengo egunean erabili ahal izateko txukun utziko dugu. Materiala eta lagunak errespetatuko ditugu. Oro har lagunetik jarrera ona izan behar dugu. Jostailuren bat apurtuko balitz, udaletxe sarreran, dagokion ontzian botako da.

ZAINDU DEZAGUN GUZTION ARTEAN HAUR TXOKOA!

Bizi Nahi elkarteak inoiz baino biziago

Gustura eta pozik daude Bizi Nahi jubilatue elkarteak herrian duten egoitzarekin. Bazkariak, txangoak, bidaiak, mahai jokoak eta beste hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dituzte hilero. Bertara gerturatuz gero, batez ere arratsaldetan sumatzen da mugimendua; mahai jokoen doinuak ez du etenik, eta hilean behin bingoan jokatzearekin batera txokolatada edota pintxo dastatzeak egiten dituzte. Batzordeko kideek diotenez: "Gune honen helburua jubilatuen integrazioa eta herri mailako sozializazioa da". "Jubilatuen egoitzak eskaintzen duen zerbitzua herritar guztientzat da" adierazi dute.

Asteartero plazan elkartu eta tipi-tapa joaten dira paseo bat ematera, berriketarako aukerarik galdu gabe. Gimnasia saioak ere egiten dituzte: jarrera orekatzeko tailerrak, gorputzeko atalak indartzeko ariketak... Aurrera begira, oroimena lantzeko tailerra aurreikusita dute, eta baita Alzheimerren inguruko hitzaldi bat ere. Gainera, elikadura eta gaixotasunak gaia hartuta beste tailer bat ere egingo dute. Norberak bere burua zaintzen ikasteko aukerarik ez dute galtzen.

Elkartean egiten dituzten ekintzez gain, hemendik kanpora ere irteten dira, hala nola, Tolosa-Alegiara txangoa eginez, Pasaiara, Errioxara... Sagardotegi garaian ere ez dute bisitatzeiko aukerarik galtzen!

Gaur egun, 92 bazkide dauzka elkarteak. Aurten, saiakera berezia egin da bazkide gehiago izateko, eta oraingo, sei gehiago lortu dituzte. Diotenez, "Gure asmoa elkarte bizirik edukitzea da, oso aberatsa da eta ekintza asko antolatzen ditugu". Saiakera hau, ordea, ez da hemen bukatu; herriko aldiakarian, urtean zehar egiten dituzten ekintza guztiak azaltzen saiatzen dira, jendea bazkide egitera animatuz.

Agerikoa den moduan, elkarrekin ekintza asko egiten dituzte, ondo pasatuz, momentu ederrak elkarbanatuz, lagunak eginez eta betiere bizitza osasuntsua ardatz hartuz.

Nahi al duzu elkarte honen parte izan? ■



Sagardotegira irteera

Sagardotegi denboraldian jubilatueak ez dira atzean gelditzen, eta aurten ere animatu dira. Oraingo honetan, Andoingo honetan, Andoingo Gaztañagara joan dira. Eguerdia aldean Itsasondon bertan trena hartu eta han abiatu ziren. Andoainan bertan pintxoren bat jan ondoren, bazkari ederra egin zuten sagardotegian.



Debara irteera

Apirilaren 19an, Debara joan ziren. Goizean, autobusa hartu eta 10:00ak aldera hamaiketako ederra egin zuten bertako zaharren egoitzan. Ondoren, gidari batek lagunduta, Santa Maria eliza bisitatu zuten. Gauza interesgarri asko ikasi omen zituzten, eta eliza bisitatzera gonbidatzen gaituzte, merezi omen du eta. Ondoren, bertako geografiaren inguruko azalpenak jaso zituzten irudi eta bideoz eginiko aurkezpen batek lagunduta. Bertan, flysch-ak izan ziren nagusi. Goiza pasatuta, Zumaiara joan ziren bazkaltzera, eta paseotxo bat eman ondoren, egun eder bat igarota, etxera itzuli ziren.



Altamira - Lazkaomendi - Altamira

Ordiziako Altamira auzoan hasiko dugu ibilbide hau. Industrialderantz abiatuko gara, eta goiko partetik doan oinezko pistatik jarraituko dugu, Garbigunera iritsi arte. Hemen, Oiangura doan errepidea hartuko dugu, parkera heldu arte. Parkea zeharkatuko dugu pista nagusitik, eta Oiangu Txiki baserrira iritsiko gara. Baserriaren aurretik, lurrezko pista bati jarraitu diogu, beste pista batekin topo egin arte. Eskubira hartuko dugu, eta berehala, Albitxu Behekoa baserrira iritsiko gara. Errepidea jarraituko dugu ezkerretarantz, eta Pipas tabernaren ondotik pasatu ondoren, Lartxai Baserritar Elkarteraino joango gara. Bertan, buelta hartuko dugu Albitxu Behekoraino. Altamira auzora jais-teko, eskubiko bidea hartuko dugu, Ordiziara iritsi arte. ■



Iraupena:
Altamira - Oiangu: 30'
Oiangu - Lartxai Elkartea: 30'
Lartxai Elkartea - Altamira: 40'



01

Ordiziako industrialdea



02

Suhiltzaileen egoitza



03

Oianguren baserria



04

Oiangu parkea



05

Oiangu txiki baserria



06

Albitu behekoa



07

Aralar



08

Pipas taberna



09

Lartxai baserritar elkarte



Ordiziako bidean 10

GOIERRIKO ESKOLA TXIKIEN FESTA

MAIATZAK 14, ITSASONDON

Egitaraua:

- 16:00-etan herriko plazan:
ONGI ETORRIA
eta
TESTIGUA PASA



- 16:30-etan:
JOLAS KOPERATIBOAK

- 18:30-etan:
AFARI HERRIKOIA
MUSIKAREKIN GIROTUA

AGURRA



URKIPE
HERRI ESKOLA



BABESLEAK:



Irizar



AMPO



orkli

Goierriko eskola txikien festa Itsasondon

Aurten, maiatzaren 14an, Goierriko eskola txikien 12. festa ospatuko da Itsasondon. Eskualdeko bost eskola txikietako haur, guraso eta irakasleek hartuko dute parte. Gabiria, Olaberria, Ezkio-Itsaso, Zerain eta Itsasondokoek, hain zuzen ere.

Festa 16:00etan hasiko da herriko plazan, ongietorri ekitaldiarekin, eta datorren urteko festa antolatuko duen eskolari lekukoa pasako zaio. Jolas kooperatiboak antolatu dira, haur, gazte eta helduek elkarrekin ongi pasatzeko. Eta bukatzeko, afari-merienda egingo da, musikarekin girotuta.

Festa honetan, herri osoak parte hartzea gustatuko litzaziguke, bakoitzak bere erara. ■

Haurren herriak, galdeketa egin nahi du

Egunotan, buzoiairen bidez beste orri bat ailegatu da zuen etxeetara. Bai, beste orri bat. Baina, kasu honetan, ez da edozein orri. Kasu honetan, ZUEN IRITZIA BEHAR DUGU, eta HAURREN HERRIAtik eskatzen dizuegu orri hori betetzeko eta jarritako buzoietan botatzeko (Kaxintanen, Lourdesenean, udaletxean).

Ez da batere zaila, eta keinu horrekin, DENON ARTEAN erabakiko dugu datorren ikasturteko gaien garrantzia. Horrela, iaz urtarrilean hasitako bideari beste bultzada bat emango diogu, eta hurrengo hilabeteetako lanari beste ate bat irekiko diogu.

Ez da gure asmoa hemen gairik gai aztertzen hastea, baina bai eskatuko dizuegu buzoneatu den orri hori lasai eta arretaz irakurtzeko eta gero ZUEN IRITZIA X baten bidez adierazteko. Koloreak ere kontuan hartu, baina ez iritzia baldintzatzeko, gero beharko dugun konpromisoa indartzeko baizik.

Gogoratu gorria dela zailtasun ekonomiko eta teknikoak izango ditugula adierazteko, baina ez du esan nahi inondik inora ezingo dugula egin, ezta gutxiago ere. Eta are gutxiago baldin eta herri honek (ahalik eta herritar gehienen artean) erabakitzen badu.

Orlegiz daudenak AUZOLANaz egiteko proposamenak dira. Gure ustez, bada indartu behar dugun lan egiteko modu bat, eta horregatik eskatzen dizuegu kasu horietan ere zuen konpromisoa adierazteko.

Eta bukatzeko, beltza. Errazak iruditzen zaizkigunak. Baina, horrek ez du esan nahi bakarrik egingo direnik. Denok jartzen badugu aletxo bat, dena errazago.

MILA ESKER DENO!
ETA HURBIL ZAITEZTE LANERA.
HURBIL ZAITEZTE HERRI KONPRO-
MISORA.■



Argi eta garbi hitz egin digu oraingo honetan OEIT elkarteak (Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea). Bertako partaide dugu Koro ere, herriko medikua, eta azpian duzuen idatzia taldearen izenean atera duten artikulua duzue. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Errauskailua eta osasuna

Orain egun batzuk, prentsan argitaratu da amonaren kutxatik ateratako Osasun Sailaren ikerketa bat. 2004koa, ez sendagile, ez osasun arlokoa ez den pertsona batek egina, argi ta garbi enkarguz errausketa justifikatzeko, eta ikerketen interpretazio interesatuak egiten dituen. Ondorioak hitz anbiguoekin adierazten ditu: "Ez dago arrisku erantsi signifikatiborik legedia errespetatzen duten planta modernoetan". Zenbat eritasun edo zenbat hildako dira eurentzat "arrisku signifikatiboa"? Bestalde, sobran dakigu industria honek ez duela legea errespetatzen (legea bigunegia izanda ere), eta horregatik egin dira non-nahi hainbat epaiketa, azkena orain gutxi Madrilen. Badaezpada ere, orduko Osasun Publikoko buruzagiak esan zuen arriskua "minimoa" zela eta analisiak egingo zitzaizkiela errauskailuaren ondoan bizi zirenei. Ez ziren hain lasai egongo.

Gure taldeak, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak, sendotasun eta metodologiaren kalitateagatik gai honi buruzko ikerketa zientifiko serioenak aukeratu ditu, eta horietan oinarrituz, baieztatu dezakegu, 2004ko gure manifestuan plazaratu genuen moduan,

datu tinko eta sendoak daudela esateko hondakinen erretzea lotzen dela minbizi kasuen eta hilkortasunaren handitzearekin, sortzetiko malformazioekin, eta eritasun kardiobaskular eta arnasbidekoekin, errauskailu batetik 10 km-ko inguruan bizi den populazioan. Baita errauskailu modernoek kasuan ere.

Ez aspertzeko, zertzelada batzuk bakarrik.

Sortzetiko malformazioetan aurkitu da %30eko erbi ezpainaren eta %55eko giltzurrun malformazioen handitzea; minbiziaren %29ko gibel minbiziaren eta %14ko biriketako minbiziaren igoera; ez bakarrik minbizi kasu gehiago, baizik eta hilkortasun gehiago ere bai.

Hurbiltasunagatik eta kalitateaagatik aipatu behar da Madrilgo Carlos III Institutuak egindako ikerlana. Hau da Estatuko erakunderik prestigiodunena horrelako ikerketan, eta 2012an eta Estatuko orduko

errauskailu moderno askoren datuekin, aurkitu du beren inguruneke 5 km-etan minbiziaren hilkortasuna handitzen dela: esaterako, pleura-koa, %84koa, besikulakoa %24koa eta leuzemietan %21koa, besteak beste.

Hona ezagutza zientifikoak irakasten diguna; eta, osasun-langile moduan, gure betebeharra zabaltea dela uste dugu, eta beraz, arreta edo prekauzio printzipioa aldarrikatzea, biztanleria ez kalteztzeko, hori behar du izan eta irizpide funtsezkoena gai honetan erabakiak hartzeko.

Ez dugu nahi Gipuzkoako herritarrak eta, bereziki, euren seme-alabak errauskailuek sortutako minbiziaren eta beste patologia batzuen ikerketetan erreferentzia izaterik nahi etorkizuneko beste zientzialarientzat.

OEIT. Itsasondon, 2016ko apirilaren 6an. ■



Badator gizarte morea!


Mugimenduaren hasiera Iraultza Frantsesaren garaian kokatu ohi da. Olympe Gouges iraultzaileak Emakume eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioa idatzi zuen Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioari (1789) erantzunez, azken honek ez baitzituen emakumeenak jasotzen. Ondorengo urteetan, mugimendu feministen indarrak hainbat eskubideren aldarrikapenean jarri ziren, hala nola, hezkuntza, lanpostua, jabetza, seme-alaben zaintza eta botoa emateko eskubidea lortzeko ahaleginetan, azken honek indar handia hartu zuen sufragisten eskutik. 60. hamarkadaz geroztik, mugimendu feminista zabalduz eta ugartuz joan zen.

Hasiera hartan jarritako helburu batzuk lortu baziren ere, gaur egun, oraindik, mugimendu honen beharra ukazina da gure gizartean. Ezinbestekoa da, baita ere, bortizkeriatzat zer ulertzen dugun birplanteatzea. Bortizkeria matxistak ez dira soilik hiletak; arazoa haratago doa, estrukturala da. Emakumeok beldurraren menpe hezten gaituzten bitartean, ahulak garela sinestaraziz, gizonzkoiei indartsuak direla gogorarazten

diete. Harremanak ere bortitzak dira, maitasuna jabetzarekin eta jelskortasunarekin lotzen delako naturaltasun osoz. Maitatzeko ere, egunerokotasunean eskolako ipuinetan, telebistako modako telesailetan... gogorazten dizkiguten prototipoak dauzkagu. Hauetatik kanpo maitatzen badugu, erasoak jasateko arrisku handiagoa dugu.

Gaua eta jaia: batzuentzat gozamenerako unea, beste batzuentzat, alkoholaren kontsumoak justifikatzen dituen irainak, lizunkeriak eta erasoak jasateko guneak. Batzuek "kontuz ibili" behar dugu, beste batzuek "ondo pasa!" tzen duten bitartean.

Ez gara biktimak, ezta pertsona pasiboak ere. Errealitate hau aztertu eta aldatuko dugun sujetuak gara. Arazoari errotik heldu eta emakumeak zapalkuntza egoerak jasaten dituen guneak eraldatuko ditugu. Indarra badaukagun erakusleho izan zen Gasteiz apirilaren 9an. Beraz, ekin lanari! Norberak bere inguruan kontzientziak piztu behar ditugu, jendea esnatu, gertatzen ari denaren konplize direla erakutsi, eta hau guztia eraldatzeko borrokatuko dugun sujetuak izango garela sinestarazi. ■



1

CAÑIZO. En su interior se refugian las abejas solitarias, benéficas para polinizar frutales en marzo. También es hogar de las mariposas, que devoran el pulgón.

2

ENREJADO. Tras estar vacías, las abejas de metal se pueden colocar paqueños troncos, donde vivirán los insectos xilófagos, que ayudan a descomponer maderas muertas.

3

EN INVIERNO. Algunos insectos necesitan un refugio invernal. Pueden quedarse en nuestro hotel arañas, que son perfectas para controlar plagas.

4

GRANDES. En ramitas de rosas y zarzamora viven los grandes abejorros, pequeños polinizadores.

5

CRISOPAS. Esos insectos de largas alas son muy benéficos, porque sus larvas devoran los pulgones, escarabajos, moscas blancas o ácaros.

6

AVISPAS. Los troncos agujereados son hogar de polinizadores como abejas o avispas. Las larvas de las avispas se alimentan de áfidos y reducen las plagas.

7

MACETAS. En trozos de macetas invertidas crean las tijeretas, que se alimentan de áfidos como los pulgones.

Intsektuen hotelak

Intsektuen mundu anitzak gure gizartearen merezi ez duen ospe txarra duela esan dezakegu. Baina, beste hainbat izaki bizidunek bezala, onurak ere ekartzen dizkigute. Zeintzuk ote dira intsektuek ekartzen dizkiguten onura horiek? Garrantzitsuenen artean, poliniza-

zioa eta izurriteen aurkako kontrola daude. Polinizazioak landareen bizi-raupena eta dibertsitatea bermatzen ditu, ondorioz baita gure baratz eta lorategietako fruitu eta loreena ere. Bestalde, intsektu askok beste ornogabe batzuk jaten dituzte, gure laboreetako izurriteak kontrolatuz.

Kontrol natural honek pestizidak ekiditen laguntzen digu. Orduan, zergatik ez saiatu intsektu hauek gure baratz eta lorategietara gurturarazten?

Intsektuen hotelen ideia ez da berria. Jatorria XIX. mendeko Ingalaterran egon daiteke, non lorategi

partikular askotan erleentzako kuxtak aurkitzen ziren. Horien helburua intsektuak behatzea bazen ere, gaur egungo hotel hauen aitzindaritzat jo daitezke. Intsektuen hotelak, ordea, 90. hamarkadatik aurrera indarra hartzen hasi zirela dirudi. Londresen, esaterako, lorategi askotan daude egun, eta maiz eskoletatik bisitak antolatzen dituzte horietara. Arrakasta hainbesterainokoa da ze, Euskal Herriko mahasti batzuetan ere izurriteen kontrolerako erabiltzen hasiak dira.

Etxe hauek eraikitzea ez da lan nekeza; gainera, familia edo lagun arteko saio entretenigarri eta didaktiko bihur daiteke. Hala ere, oinarriko ideia batzuk jarraitzea garrantzitsua da. Hotelak egurrezko egitura izan behar du. Irudimena landuz ziur egitura polita lortzen duzula! Egitura hau gelaxketan banatu behar da. Ondoren, gogoratu intsektu mota asko ditugula eta bakoitzak bere beharizanak dituela. Basoetan, enbor eta harrien azpian, hostotzan, adarretan, pinaburuetan eta abar luze batean azaldu daitezke izaki bizidun txiki harrigarri hauek! Beraz, inguruan topatu ditzakezun material horiek bildu eta gelaxketan antolatu beharko dituzu.

Garrantzitsua da gure hotela non kokatuko dugun ondo pentsatzea; azken finean, intsektuek gure hotela aukeratzea nahi dugu, eta horretarako baldintza egokiak eskaini behar dizkiegu, hau da, haizearengandik eta euriarengandik babestuta eta eguzki izpien berotasuna jasoko duen tokian kokatuko dugu. Gogoratu hotela lurretik zentimetro batzuk altxatzeaz, lureko hezetasunaz babesteko. Baita gelaxkak txorien-gandik eta saguengandik babesteko sarea ipintzeaz ere. Azkenik, kontuan izan erabiliko duzun materiala ezin dela produktu kimikoekin tratatua egon, intsektuentzako kaltegarria izan baitaiteke.



Zein intsektu mota uste duzu gerturatuko dela hotelera? Eta zein onura ekarriko dizkizu intsektu mota bakoitzak? Egur zulatueta erleek larbak jarriko dituzte, tximele tek iluntasuna bilatuko dute kaxatxo hutsetan eta sirfidoek (erleen antza duten eltxoek) banbu zatietan larbak jarriko dituzte. Guzti hauek polinizatzaile paregabeak dira! Egur eta lastoak krisopei babesa emango diete eta hauen larbek landare zorriak, euli zuriak eta akaroak jango dituzte; amona man-

tangorriek pilatutako zurezko zati txikiak bilatuko dituzte negua pasatzeko eta beraien larbek zorri kopuru handiak jango dituzte; beraz, azken hauek izurriteak kontrolatzen lan handia kenduko dizute!

Laster ikusi ahal izango ditugu Itsasondon intsektuen hotelak, maiatzaren 13an herri eskolako umeekin batera eraiki eta eskolako baratzean edota herriko parkean jarriko baititugu. Erabilgarriak ez ezik hotel txiki hauek apaingarri politak direla ikusiko duzu orduan! ■



Errealitate birtuala

2016. urtea errealitate birtualaren urtea izango da, eta aisialdirako nahiz ikerkuntzarako tresnarik erabilgarrienetarikoa bat bilakatuko den.

Dagoeneko iritsi da merkatu mundura errealitate birtuala. Ez da 3D (hiru dimentsiotan) ikusteko aparatu bat, beste mundu batean sartzeko aukera ematen digun tresna bat baizik.

Atzean gelditu dira 3Dko betaurrekoak, 3D telebistak eta zineak. Orain, betaurreko berezi batzuei esker, gai gara gure pertzepzioa inguru guztietatik ailegatzeko eta beste mundu alternatibo batean sartzeko.

Oculus Rift (Facebook-eko proiektu bat) aurrenetarikoia izan da errealitate birtualeko betaurrekoak ateratzen. Betaurreko hauei esker, zu zara protagonista. Oculus Rift, printzipioz, bideojokoetarako dago diseinatuta. Hemendik aurrera, zuk ez duzu gidatuko pertsonaia artifizial bat, zeu izango zara pertsonaia hori, eta zuk zeuk egin beharko dituzu akzio guztiak jokoan.

Duela pare bat urte, Oculus Rift proiektuak argia ikusi zuenetik, konpetentziak ere mugimendu eta merkatu berera igo nahi du. Adibidez, Samsung-ek dagoeneko bere gama altuko mugikorretan errealitate birtuala erabiltzeko aukera ematen digu. Erabili ahal izateko, nahikoa da aplikazio bat deskargatzea eta buruko akzesorioa erostea. Ondorioz, gure mugikorra errealitate birtualeko makina bilakatzen da.



Ez pentsa aplikazio hori Samsung-ena denik. Berez, Google konpainiarena da, eta egokituta dago Android erabiltzen duten mugikorretarako, batez ere, gama altukoentzako. Aplikazioak, berez, Android VR izena du. Hori bai, gero, mugikor etxe bakoitzak bere akzesorio propioak ditu.

Sony ere animatu da bere errealitate birtuala programa berezia ateratzera. Dagoeneko bilatzen ari dira formula bat, non konpatibleak izan daitezkeen PlayStation eta Sony Xperia mugikorrek.

HTC mugikor markak Valve bideojoko lizentzia banatzailearekin bat egin du beraien errealitate birtuala produktu propioa ateratzeko. ReVive izenarekin aterako da, eta Valve ezagututa, bideojoko potentekin etorriko zaizkigu ReVive betaurrekoak.

Horiek dira, oraingoz, gehien entzuten diren produktuak; baina, Apple, Nintendo eta Xiaomi ez dira atzean geratuko. Dagoeneko interesa azaldu dute errealitate birtualarekiko. Eta, esan beharra dago, ez dela saiatzzen diren aurreneko aldia.

Badirudi, hemendik urte batzuetara ez dugula beharko ez mandorrik, ez arbelik, ez monitorerik jolasteko edota ikasteko. Hala uste duzue? ■

Odol emailleak

Martxoaren 22an odola emateko aukera izan genuen Itsasondon, eta ondoren, bolondres batzuek presatutako ogitarteko gozo-gozoei esker indarberritu ginen. Gogorarazi nahi dizuegu, odola eman ondoren mokadutxo bat jateko aukera izaten dela Bizi Nahi jubilatuko elkartean. Jende ugari inguratu bazen ere, inoiz ez da nahikoa; beraz, lerro hauen bitartez, hurrengo saioetara jendea animatu nahiko genuke. ■



Pintxo lehiaketa

Pintxo lehiaketa antolatu zen Bizi Nahi jubilatuen elkartean pasa den otsailaren 12an. Bi modalitate osatu zuten lehiaketa. Alde batetik, haurren modalitatea, eta bestetik, helduen modalitatea. Haurren artean, Malen eta Jone izan ziren irabazleak, eta helduen artean, berriz, Eider. Zorionak! Sukaldari bikainak eginda zaudete! ■



Haurrak pintxoak dastatzen



Eider irabazlea

Martxoak 8

Beste urte batez, herriko plazan elkarretaratzea egin ez ekin genion Itsasondoko emakumeok martxoaren 8ko ospakizunari. Aurten, EMAKUMEOK MUGAK GAINDITZEN JARRAITUKO DUGU! lelopean elkartu ginen. Ondoren, Kaxintanen eta Nautikon geldiuneak eginez, Arbelaitzen afaldu genuen Ikerrek prestatutako menu gozo-gozoa.

Aurten, Maritxu Otegi omendu nahi izan genuen, beste emakume askok bezala, familia aurrera ateratzen egindako lanagatik; baita Nautikoko sukaldean eginda-koagatik ere. Merezitakoa!

Afal ondoren, clown baten saioa ere izan genuen.

Datorren urtean ere horrela elkartzeko aukera izan dezagula! ■



Elkarretaratzea



Maritxu Otegi omendua, oparia jasotzen

Kirol astea 2016

Apirilaren bigarren astean, kirol astea antolatu genuen, Kultura batzordearen, Jubilatuta Elkartearen eta Karreape gaztelekuaren artean. Asteartean, Iker Irribarria pelotari aramarraren bisita izan zuten Urkipe herri eskolako haurrek. Galderak egin zizkieten, bertso bat abestu ere bai, eta bukatzeko, pelota saio txiki bat egin zuten frontoian.

Arratsaldean, berriz, ttipi ttapa herrikoia zegoen antolatuta. Azken momentuan, ordea, eguraldia zapuztu zen; baina, horrek ez zien kirola egiteko gogoia kendu, eta bertaratu ziren, haur, heldu eta zaharrek Idoiaren laguntzaz beroketa ariketa batzuk egiteko aukera izan zuten. Atertu zuenean, bidegorrian paseotxo bat egin zuten.

Ostegunean, Alex Txikonek bere azken abenturari buruzko hitzaldia eman zuen. Jende ugari izan zen.

Kirol astea bukatzeko, igandean mendi irteera egin zuten Karreape gaztelekuko gazteek. ■



Alex Txikon hitzaldian



Iker Irribarria Urkipean eskolan

Herri txiki, ekimen handi

Joan den otsailaren 25ean dokumental harrigarria jukusi ahal izan genuen seguratarren eskutik. Harrigarria, ez kontatzen den istorioagatik bakarrik: "Euskal Herria zatitu zuten garaiko istorioa"; baizik eta hori kontatzeko Segurako herritar ia guztiak mobilizatu zirelako. "Bidean galdutako izena eta izana" antzezlanean, 40tik gora lagunek parte-hartze zuzena izan zuten, eta Erdi Aroko afaria girotzeko, gainerako guztiak jantzi ziren figurante lana egiteko. Abesbatza ere, herrikoa.

Nafarroa gineneko garaia iruzurriz derrigor jakin beharreko kapitulua dakarte gogora obra honetan. Gure herriaren memoria historikoan argi beharko genukeena goierritarrok. Alfntso VIII.a gaztelarraren tropek Gasteiz setiatu eta errenditzera behartu zutenekoa. Ondoren, 1200. urtean, Jakue Bidean barrena Baionaraino. Lizarrateko ostatu eta derrigorrezko pasabidea zen horretan gertatuko istorio bat da. Alfntso X.ak, espainolek jakintsu deitzen diotena, baina, txarkeria egiten baino ez zekienak, Segura harresitzea agindu zuen, euren soldaduak herritarren haserretik gordetzeko.

Erraztiolatza izena eta euskal izana zuena Segura para los castellanos izendatu zuen. Bertako jauntxo euskaldunak Nafarroako erresumaren kontra jarri eta "gaizkileen muga" bezala ezagutzen dugun horretan, liskarrak piztu zituzten. Euskaldunak euskaldunen kontra, identitateen batasuna zatitu zuten. Lehen denok nafarrak ginen, eta orain, batzuk baskoak eta besteak nafarrak gara. Belar gaiztoa erein eta lurra ongarritu zuten gure arteko haserreak bultzatu eta 1512ko konkistan gaztelarrekin batera arbasoen kontra aritzeko.

Halaxe kontatzen da dokumental bihurtutako antzezlanean: "Herri librea bere sustraien bila dabil beti, lurrari gogor heldu eta zutik egoteko. Herri libreak pizturik eutsiko dio arbasoek utzitako ondarerik preziatuenari (...) ahanzturan erori gabe, bizirik jarraitzeko". Hitz horiekien hasi dute istorioa Plaza Zaharreko Lagunak taldekoek. DVD formatuan argitaratu dute lana, eta dagoeneko eskuragarri duzu 12 euroren truke, Erraztiolatza erakustokian, Seguran eta Nabarralderen webgunean. Ikuskizun on dagizula, irakurle.

Plaza Zaharreko Lagunak ■



(natura)

Xaguxarrak ala gau-enarak?

Dokumentaletan animalia arraro ugari ikusten ohitu gara dagoeneko: bada pizti ugari munduan! Baina gurean ere ez da narbarmantzeko modukorik falta. Igarri: txoriak ez izan arren, hegari dotore; eta gau ilunenean ere oztupoak bizkor asko libratuz. Euskaldunok (ez guk bakarrik) xaguen tankera hartu diegu, baina izendatzerakoan ezin ahaztu nonbait gaueko hegari trebeak ere badirela.

Ugatzun gehienak lurra zapalduz bizi bagara ere, badira uretara moldatu direnak: baleak edo izurdeak esaterako. Baina benetan hegari egiten ikasi duten bakarrak saguzarrak izan dira, hegazkinak zerua marra zuriz betetzen hasi ziren arte behintzat.


Horretarako, mintz fin bat bilakatu dute, eskuetako eta oinetako hatzen artean zabaltzen dena (patagioa) eta, bihotz erraldoi batek elikatzen dituen gihar sendoek arin mugituz, aidean zalapartaka lirain asko itzulginguruan! Eta ikusmen txarra omen dute baina ez al dute xuxen asmatzen ilunpean!

Eta talde arrakatsua suertatu da alajaina. Munduan zehar 1.100 espezie desberdin ezagutzen dira, 2 gramo besterik ez duten txikienetatik, kilo pasa pisatzen duten metro eta erdiko erraldoietara. Baina ez beldurtu, hauek fruta-zaleak dira eta. Saguzarren artean famatuena egin diren banpiroak txikitakoak dira (zorionez) eta Hegoamerikan bakarrik bizi dira.

Baina gaizki dihoakie azken urte hauetan. Euskal Herrian 25 espezie ezagutzen dira eta 3 ez beste guztiak legearen babesa behar iraungo badute. Larrienak zuhaitz eta baso zaharretan bizitzera espezializatutako saguzarrak dira; beharko gaizki ibili gurean!

Kobazuloak, harkaitzen arrakalak, zuhaitz zaharren zuloak eta abar dira beren gordeleku naturalak. Beren berezko habitata ez den arren, saguzarrak egokitu egin dira gizakiok sortutako azpiegituretan bizitzera, eta, zenbaitetan, etxebizitza, eliza eta abarretan sartzen dira, babesleku bila, umatzeko toki egoki eske eta abar. Holakoetan ez beldurtu, ez dute odolik hurrupatzen, baina ez saiatu eskutan hartzen, saiatu animaliarri kanpoko bidea errazten.

Hurrengo batean jarraituko dugu animalia hauei buruz zerbait gehiago esaten. Bitartean txapela aiereratuz saguzarren bat harpatu duenik ba ote dagoen jakin nahiko genuke. ■



Iñaki Aizpuru



(errezeta)

Calcots (tipulin moduko batzuk) romesku saltsan

4 pertsonentzako osagaiak

Calcots (50 inguru). Katalunian oso ezagunak diren gure tipulinen antzekoak dira, gurean gero eta gehiago aurkitzen direnak.

Elaborazioa:

2 piper gorri
6 tomate (gorrituta)
Baratzuri buru bat
Tipula bat
12 almendra
12 hur ale tostatu
3 ogi xerra
Gatza
Piperbeltza
Tabaskoa
Jerezko ozpina (½)
Oliba olio edalontzi bat eta erdi.

Saltsa

Labeko plaka batean piperrak, tomateak, baratzuriak eta Tipula jarriko ditugu 180° gradutan ordu erdi batez. Labearen arabera beharrezko denbora aldatzen denez, begiratu barazki guztiak ondo egin diren. Barazkiei eta baratzuriei azala kendu eta gorde.

Labean ogia, hurrak eta almendrak xigortu, baina kontuz, ez daitezela erre.

Osagai guztiak prest ditugunean, denak ontzi batean jarriko ditugu eta, oliba olio eta ozpinarekin batera gatza, piper hautsa eta tabasko pixkat botako diegu, saltsak pikante puntu bat izan dezan.

Calcots-ak

Ondo garbituko eta zurituko ditugu, ondoren plantxan egingo ditugu, norberaren gustura egon arte.

Aurkezpena: plater batean jarriko ditugu Calcots-ak txukun-txukun, eta ondoren saltsa botako diegu gainetik, edo nahi bada, aparte zerbitzatu daitezke. On egin! ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Oso liburu eder BAT irakurri dut.	Oso liburu ederrA irakurri dut.
Konortea berreskuratu zuen.	Bere onera etorri zen.
Irakasleak bilduta daude.	Irakasleak bileran daude.

Euskaraz bai, umorea ere bai:

Auzoko tabernan elkartu dira Mikel eta Jon:

- Erretzeko gogoak kentzen duen mediku batengana joan naiz gaur goizean - esaten dio Mikelek Joni.
- Zorionak, ba zen garaia! Eta orain, erretzen al duzu?
- Bai, baina gogorik gabe.

Albisteak

Eustateko azkeneko informazioaren (2015ekoa) arabera, EAEko biztanleriaren %25,4ak euskaraz nabigatzen du, %25,4ak ingeleraz eta %4,2ak frantsesez. Gipuzkoan ostera, euskaraz nabigatzen dutenen portzentaia %38,5era igotzen da eta Bizkaia zein Araban %19,1a da.

Belaunaldi ezberdinetako datuetan arreta jartzen badugu, ikusiko dugu, 15 eta 35 urte bitartekoeak, ia %40ak erabiltzen duela euskara nabigatzeko. Hau da, hizkuntza ezagutzen dute, menperatu eta baita erabili sarean nabigatzeko ere, ondorioz, euskaraz nabigatzen duten 3 pertsonetatik 2 gazteak direla.

Liburutegia

Liburutegi berriak 3 urte ditu jada eta denbora honetan herritar asko izan zarete gerturatu zaretenak liburuak hartzera, kizgunea erabiltzera edota ikas-terera. Apirillean, erabiltzaileei galdetu nahi izan diegu, zerbitzuarekiko satisfakzio maila, zer dagoen ondo, zer gaizki eta proposamenak ere jaso nahi genituen. Horretarako alde batetik, bilera deitu zen herritarrekin egiteko, beste bilera bat herriko gazteekin egin zen eta azkenik, haurrekin egin genuen beste saio txiki bat. Ekarpinak jaso ditugu eta momentu honetan udala ekarpinak aztertzen ari da. Eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera, gure liburutegi zerbitzua hobetzeko proposamenak, ekarpinak egin dituzuen guztiei.

Irakurzaletasun kanpaina

Apirilaren 8an, mailegu bat sorpresa bat ekitaldia egin genuen, haur liburu eguna ospatzeko. Egun horretan bertaratu ziren herritarrek, liburua hartzeaz gain, goxoki bat eramateko aukera izan zuten. Jende



ugari bildu zen. Karreape gaztelekuko nesken laguntza izan genuen maileguak eta apuntatzeko. Bide batez, liburutegiak antolatu zuen marrazki lehiaketako lanak ikusgai jarri ziren eta irabazleen sari banaketa egin zen. Rosa, Aimar eta Eurik jaso zuten liburu sorta bana.

Azkenik, haurrek ere liburutegi zerbitzuaren inguruko proposamenak egiteko ere mural erraldoia jarri zen. Jasariko ekarpinak aztertzen ari gara. Mila esker!!



TXAKUR KAKA

Denok dakigu txakur jabe bakoitzaren bete beharra dela bere txakurrak egiten dituen kakak jasotzea. Hala ere txakur jabe guztiek ez dituztela beraien txakurrek eginiko kakak jasotzen gauza nabaria da, denok ikusi bait ditugu azkenaldian txakur kakak espaloian, plazan, haurren parkean naiz belardietan. Udalean hainbat herritarrek salaketa jarri dute arrazoi honengatik eta jakinarazi nahi dizuegu salatutako txakur jabeen aurkako neurriak hartzen hasiak direla. Txakurrak edukitzea ondo dago, beti ere horrek dakartzan ardurak betetzen badira. Beraz MESEDEZ, ZURE TXAKURRAREN KAKAK JASO!

Oharrak



FESTA BATZORDEA

Festa batzordearen hurrengo bilerak izango ditugu maiatzaren 11an eta ekainaren 1 eta 22an, arratsaldeko 6etan, udaletxean. Talde eta kuadrilla guztietako ordezkariak bertan parte hartzeko deia egiten dizuegu. Denen artean ahalik eta jai parte hartzaileenak eta denentzako ekintzak osatua izatea nahiko genuke. Horretarako zure partaidetza ezinbestekoa da. PARTE HARTU!!

DOKUMENTAL/FILM ZIKLOA

Pasa den martxoaren 16an hasi zen dokumental/film zikloa Itsasondoko kultur gunean. Guztira zortzi dokumental/film proiektatuko dira azaroaren 23a bitarte. Iazko urtean ez bezela, aurten, Ongizateko batzordeak ala erabakita, hilean behin dokumental edo film bat proiektatuko da. Zuen gustokoak izango direlakoan, geraturatu eta saioez gozatzera animatu nahi zaituztegu.

MAIATZA

- 10, 17, 24 eta 31:** TIPI TAPA, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseoak.
- 10:** ALZHEIMERRAREN PREBENTZIOAren inguruko hitzaldia | 18:30etan
- 11:** JAI BATZORDEA | 18:00 udaletxeko 2. solairuan.
- 11:** Film-a erderaz BICICLETA, CUCHARA, MANZANA | 19:00tan Kultur gunean.
- 14:** Itsasondoko Eskola Txikien festa.
- 14:** Makrobiotika tailerra.
- 23:** Nerea Mendizabalekin hitzaldia: Nola sahiestu eguneroko gatazkak.
- 24 eta 31:** MEMORIA TAILERRAK | 18:00tan Bizi Nahi jubilatuta elkartearen
- 25 eta 26:** Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaro teoriko-praktikoa.

EKAINA

- 01:** JAI BATZORDEA | 18:00 udaletxeko 2. solairuan.
- 07, 14, 21 eta 28:** Tipi Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseoak.
- 05:** GURE ESKU DAGO | Herri galdeketa.
- 11:** Makrobiotika tailerra | Udako sukualdea.
- 12:** Eskola-txikien festa Ikaztegiatan.
- 13, 15, 20 eta 22:** SORGIN DANTZA entsaioak.
- 17:** Eskola festa
- 21:** Eskolako azken eguna | bazkaria eta festa.
- 21:** HARRERA BILERA | 18:00 plazan. Kanpotik herrira bizitzera etorri deirenei ongietorria egiteko bilera.
- 22:** JAI BATZORDEA | 18:00 udaletxeko 2. solairuan.
- 22:** Dokumentala euskaraz ARRAKALA: ZIRRIKITU BAT HAITZEAN | 19:00tan
- 23:** San Juan sua eta sardina jana plazan.
- 25:** Makrobiotika tailerra | Menu orekatua.
- 27:** Gaztelekuko uda kanpaina hasiera.

UZTAILA

- 01 eta 02:** Garagardo festa.
- 04-22:** Uda kanpaina
- 05, 12, 19 eta 26:** Tipi Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseoak.
- 08:** KANPOKO FILM-a erderaz AL REVES | 22:00tan goiko frontoi txikian.
- 09:** Makrobiotika tailerra | Azkenburuko naturalak.
- 15:** Gaztelekuko uda kanpaina amaiera

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881 170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	
	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	
	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((32. zk.)) Maiatza-Uztaila 2016

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Aitor Garmendia
Amaia Salegi
Aranzadi elkarte
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatuta elkarte
Danel Etxeberria
Enma Arrendo
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haurreskolako hezitzaileak
Iñaki Aizpuru
Iratxe Ibarra (UEMA)
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturritxiki Guraso Elkarte
Juanan Jimenez
Koro, herriko medikua
Maite Lasa
Maddi Alberdi
Mikel Mendizabal
Rosi Nogera
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN: 2171-5572
SS-297-2010



GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA UZTAILEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN